

Xedapen Orokorrak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3824

AGINDUA, 2010eko maiatzaren 4koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, barraskiloen ekoizpenerako Euskadiko nekazaritza ekoizpen ekologikoaren arau teknikoak argitaratzeko dena.

Kontseiluaren 2007ko ekainaren 28ko 834/2007 Erregelamenduak (EE), produktu ekologikoen ekoizpenari eta etiketatzeari buruzkoak, ekoizpen metodo ekologikoak modu iraunkorren garatzeko oinarria ematen du 1. artikuluan, eta helburu eta printzipio erkide batzuk ezartzen ditu, produktu ekologikoak ekoizteko, prestatzeko eta banatzeko etapa guztien eta horien kontrolen gaineko arauak indartzeko, bai eta etiketatuan eta publizitatean ekoizpen ekologikoari erreferentzia egiten dioten oharrak idazteko ere.

2. artikuluan, honako hau dio: «Araudia ekologikotzat merkaturatzen diren edo merkaturatuko diren nekazaritza produktu hauei aplikatuko zaie: a) nekazaritza produktu biziak edo eraldatu gabeak, b).....».

Barraskiloak edo horien animalia produktuak araudiaren ezarpen eremuaren barruan sartzen dira, zehazki Kontseiluaren 834/2007 (EE) Erregelamenduko 2. artikuluko a) idatz-zatiaren barruan. Horiek izendapen ekologikoaren babespean merkaturatu ahal izateko, aipaturiko araudian eta berorren ondoko aldaketetan ezarritako arau eta printzipio orokorren arabera haziak beharko dute izan animaliek.

Geroago, 2008ko irailaren 5eko 889/2008 (EE) Erregelamendua argitaratu zen. Haren bidez, espezie batzuei aplikatu beharreko ekoizpen eta etiketatzeari nahiz kontrolari buruzko arau espezifikokoak ezarri ziren; hauek dira espezie horiek: behiak, zaldiak, txerriak, ardiak, ahuntzak, eskortako hegaztiak eta erleak, 7. artikuluan xedatzen den moduan. Animalia espezie jakin batzuei aplikatu beharreko xedapenek, duten eboluzioagatik, denbora gehiago beharko dute; beraz, geroagoko prozedura batean aurkeztu beharko dira (araudi honetako 2. oinarrian adierazi den bezala). Horregatik, araudi honen ezarpen eremutik kanpo gelditzen dira, besteak beste, aipaturakoak ez beste abere espezieak. Beraz, barraskiloak kanpoan geratzen dira.

Kontseiluaren ekainaren 28ko 834/2007 (EEE) Erregelamenduak 42. artikuluan ezartzen du animalia

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

3824

ORDEN de 4 de mayo de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se ordena la publicación de las normas técnicas específicas de la producción agraria ecológica de Euskadi para la producción del caracol.

El Reglamento (CE) n.º 834/2007, del Consejo, de 28 de junio de 2007, sobre producción y etiquetado de los productos ecológicos, según su artículo 1 proporciona la base para el desarrollo sostenible de métodos ecológicos de producción y establece objetivos y principios comunes para respaldar las normas que establece referentes a todas las etapas de producción, preparación y distribución de los productos ecológicos y sus controles así como para el uso de indicaciones en el etiquetado y la publicidad que hagan referencia a la producción ecológica.

En su artículo 2 indica que «el Reglamento se aplicará a los siguientes productos que, procedentes de la agricultura, se comercialicen o vayan a comercializarse como ecológicos: a) productos agrarios vivos o no transformados, b).....».

Los caracoles o sus productos animales se encuentran dentro del ámbito de aplicación del Reglamento, en concreto dentro del precitado apartado a) del artículo 2 del Reglamento (CE) n.º 834/2007 del Consejo de 28 de junio. Para éstos puedan comercializarse al amparo de la denominación ecológica los animales, deberán haber sido criados de acuerdo con las normas y principios generales establecidos en el citado Reglamento y sus modificaciones posteriores.

Posteriormente se publica el Reglamento (CE) n.º 889/2008, de 5 de septiembre, que establece las normas específicas de producción y su etiquetado y control aplicables las siguientes especies: bovina, equina, porcina, ovina, caprina, aves de corral y abejas tal como se indica en su artículo 7. Las disposiciones de aplicación de determinadas especies animales, por su evolución, requerirá más tiempo, por lo que deberán presentarse en un procedimiento ulterior (tal como se indica en el considerando 2 de este Reglamento). Por ello quedan excluidas del ámbito de aplicación de este Reglamento, entre otras, las especies ganaderas distintas de las mencionadas. Por lo tanto el caracol quedaría excluido.

El Reglamento (CEE) n.º 834/2007 del Consejo de 28 de junio, en su artículo 42 dispone que en ca-

espezie jakin batzuen ekoizpenari aplikatzeko xedepenezko ezartzen ez bada etiketatzeari eta kontrolari buruzko xedapenak aplikatuko direla. Gainera, arau nazionalak aplikatuko dira, edo, halakorik ezean, estatu kideek onetsitako eta aintzatetsitako arau pribatuak. Gaur arte ez da inolako arau teknikorik onetsi estatu gisa honetako ekoizpenetarako.

Autonomia erkidego honek erantzun egin behar die nekazaritza ekologikoaren araubidean erregistratuta dauden eta jarduera nagusia barraskilo hazkuntza duten eragileei. Hori horrela, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Legeak 6. artikuluan xedatzen duenari jarraiki horretarako eskumena duen organoak, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak alegia, Barraskiloen Ekoizpen Ekologikorako Arau Teknikoa egin eta onetsi zuen, Kontseiluaren ekainaren 28ko 834/2007 (EEE) Araudian ezarritako arau eta printzipio orokorrekin bat etorriz.

Arau teknikoetan, espeziearen ezaugarriei ondo egokitzen zaizkien xedapenak ezarri dira, alderdi hauei gainean: eraldaketa, animalien jatorria, elikadura, profilaxia eta albaitari zaintza, abeletxe eta instalazioetako hazkuntza eta mantentze arauak, kudeaketa zooteknikoaren metodoak, garraioa eta animalien eta animalia produktuen identifikazioa.

Orobat, abenduaren 29ko 10/2006 Legeko 6.1.c) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, 2009ko maiatzaren 20an, Euskadiko Nekazaritza eta Elikaduraren Kontseiluak proposatu zion Ingurumen, Lurralde Planifikazioa, Nekazaritza eta Arrantza Sailari, nekazaritza arloan eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Sailari, argitaratu zezala barraskilo hazkuntza arautzen duen araua, hau da, barraskiloen ekoizpenerako Euskadiko Nekazaritza Ekoizpen Ekologikoari buruzko Araudi Tekniko Espezifikoa.

Gainera, arau tekniko honetan, arau eta araudi teknikoaren arloan informazio prozedura bat ezartzen duen eta 98/48/EE Zuzentarauaren bidez aldatu zen 98/34/EE Zuzentarauak xedatzen duenaren ondorioetarako arau tekniko bat den neurrian, jakinarazpen prozedura aplikatu da, onartu aurretik, erkidegoko arau horretako 8. eta 9. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, araudi teknikoaren proiektua Batzordeari jakinarazi zitzaionetik onetsi zen arte ezarritako hiru hilabeteko epea errespetatuta. Prozedura horren helburua da gardentasuna eta kontrola bermatzea arau eta araudi horiei dagokienez, eta, modu horretan, estatu kideen artean bidegabeko oztupoak sortzeko arriskua murriztea.

so de no establecerse disposiciones de aplicación para la producción de determinadas especies animales, serán de aplicación las disposiciones para el etiquetado y control. Además, serán de aplicación las normas nacionales o en su defecto, normas privadas aceptadas o reconocidas por los Estados miembros. Hasta este momento no se ha aprobado ninguna norma técnica para este tipo de producción a nivel estatal.

Esta Comunidad Autónoma tiene necesidad de dar cobertura a los operadores registrados en el régimen de Agricultura Ecológica y cuya actividad principal es la cría de caracoles. Teniendo en cuenta lo indicado anteriormente, se ha elaborado y aprobado, por el órgano competente para ello en virtud de lo dispuesto en el artículo 6 de la Ley 10/2006, de 29 de diciembre, de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi, a la sazón el Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi, la Norma Técnica Específica para la Producción Ecológica del Caracol de acuerdo con las normas y principios generales establecidos en el Reglamento (CEE) n.º 834/2007 del Consejo, de 28 de junio y sus modificaciones posteriores.

En las Normas Técnicas se adoptan disposiciones que se adaptan a las características de la especie relativas a conversión, origen de los animales, alimentación, profilaxis y cuidados veterinarios, reglas de cría y mantenimiento de granjas e instalaciones, métodos de gestión zootécnica, transporte e identificación de animales y productos animales.

Así mismo, en aplicación de lo dispuesto en el precitado artículo 6.1.c) de la Ley 10/2006, de 29 de diciembre, el 20 de mayo de 2009, el Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi propone al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, la publicación de la norma que regula la helicultura, Normativa Técnica Específica de Producción Agraria Ecológica de Euskadi para la producción del caracol.

Además la presente norma técnica, en la medida que constituye un reglamento técnico a efectos de lo dispuesto en la Directiva 98/34/CE por la que se establece un procedimiento de información en materia de las normas y reglamentaciones técnicas, modificada por la Directiva 98/48/CE, ha sido debidamente sometida, previamente a su adopción, al procedimiento de notificación previsto en los artículos 8 y 9 de la mencionada norma comunitaria, respetando el plazo de tres meses establecido en la Directiva entre la comunicación del proyecto de reglamento técnico a la Comisión y la adopción del mismo. Este procedimiento tiene por objeto proporcionar transparencia y control en relación con dichas normas y reglamentaciones técnicas, reduciendo así el riesgo de creación de obstáculos injustificados entre los Estados miembros.

Horren arabera, hauxe

EBATZI DUT:

Agintzea argitara dadila agindu honen eranskinean datorren barraskiloen ekoizpenerako Euskadiko Nekazaritza Ekoizpen Ekologikorako arau tekniko bereziak.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 4a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

ERANSKINA

BARRASKILOEN EKOIZPEN EKOLOGIKORAKO
ARAU TEKNIKOAK

1.- Printzipio orokorrak.

1.1.- Barraskiloak edo haren animalia ekoizpenak izendapen ekologikoaren babespean merkaturatu ahal izateko, 834/2007 (EEE) Araudian eta berorren ondoko aldaketetan ezarritako arau eta printzipio orokorren arabera haziak beharko dute izan animaliek, arau tekniko hauek arautzen dituzten alderdietan izan ezik.

1.2.- Barraskilo hazkuntza, nekazaritza ekologikoren esparruan, lurzoruari lotutako ekoizpen bat da. Modu horretan, lurzoru-landare, landare-animalia eta animalia-lurzoru harreman osagarriak ezarri eta gorde dira.

1.3.- Barraskilo ekologikoen hazkuntzan, Nekazaritza Ekologikoari buruzko Araudia betez hazi beharko dira ekoizpen unitate bereko animalia guztiak.

1.4.- Barraskiloak sortaka identifikatuko dira, eta sorta bakoitzean datu hauek adieraziko dira:

– Sorta zein parkeri edo parkeko zein azpisaili dagokion.

– Zein egunetan jarri den parkean.

– Barraskiloak zein egunetan bildu diren.

2.- Eraldaketa.

2.1.- Barraskilo hazkuntzari loturiko lurak eraldatzea.

Ekoizpen unitate bat ekologiko bihurtzean, animaliak bazkatzeko erabiltzen den unitateko azalera osoak bete beharko ditu nekazaritza ekologikoaren gaineko arauak. 889/2008 (EEE) Araudiak 37. eta 38. artikuluetan ezartzen dituen eraldaketa aldiak aplikatuko dira, hau da: erein baino bi urte lehenago gutxienez, eta, belardien kasuan, nekazaritza ekologikoko pentsu

En su virtud,

RESUELVO:

Ordenar la publicación de las Normas Técnicas Específicas de la Producción Agraria Ecológica de Euskadi para la producción del caracol que se acompaña en el anexo a esta orden.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de mayo de 2010.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

ANEXO

NORMAS TÉCNICAS PARA LA PRODUCCIÓN
ECOLÓGICA DEL CARACOL

1.- Principios generales.

1.1.- Para que los caracoles o sus productos animales puedan comercializarse al amparo de la denominación ecológica, los animales deberán haber sido criados de acuerdo con las normas y principios generales establecidos en el Reglamento (CEE) n.º 834/2007 y sus modificaciones posteriores, salvo en aquellos aspectos regulados por las presentes Normas Técnicas.

1.2.- La cría del caracol en el marco de la agricultura ecológica es una producción ligada al suelo. De esta manera se establecen y mantienen las relaciones complementarias suelo-plantas, plantas-animales y animales-suelo.

1.3.- En la cría de caracoles ecológicos, todos los animales de la misma unidad de producción tendrán que ser criados cumplimentando la normativa de la Agricultura Ecológica.

1.4.- Los caracoles se deberán identificar por lotes, indicando para cada lote:

– el número del parque o la subdivisión del parque que alberga el lote.

– la fecha de puesta en el parque.

– las fechas de recogida de los caracoles.

2.- Conversión.

2.1.- Conversión de tierras asociadas a la cría del caracol.

Cuando se convierta en ecológica una unidad de producción, toda la superficie de la unidad utilizada para la alimentación animal deberá cumplir las normas de agricultura ecológica. Se aplicarán los períodos de conversión indicados en los artículos 37 y 38, del Reglamento (CEE) n.º 889/2008, los cuales serán de al menos dos años antes de la siembra o, en el

gisa ustiatu baino bi urte lehenago gutxienez. Halaber, eraldaketa aldia goizetik hasiko da ekoizleak 8. artikuluekin bat etorritik bere jardueraren berri eman eta ustiategia 9. artikuluan ezarritako kontrol araubidearen pean jartzen duen egunean.

2.2.- Barraskiloen eraldaketa.

Animaliak edo animalia produktuak izendapen ekologikoarekin saldu ahal izateko, animaliak gutxienez lau (4) hilabetean hazi beharko dira Nekazaritza Ekologikoei buruzko Araudien arabera.

3.- Animalien jatorria.

3.1.- Barraskilo kumeak hautatzean, kontuan hartuko dira animaliek ingurunera egokitzeko duten gaitasuna, haien bizindarra eta gaixotasunei aurre egiteko duten ahalmena. Soil-soilik Espainiako Elikadura Kodeko 3.13.17 idatz-zatian bildutako *Helix* generoko espezie hauek eta horien sinonimoak erabili ahaliko dira: *Helix gualteriana*, *Helix alonesis* (*H. candidissima*, *H. lactea*, *H. aspersus*) eta *Helix pomatia*. Beste edozein genero edota espezie autoktono erabiltzeko, agintaritza eskudunaren baimena beharko da.

3.2.- Barraskiloek Nekazaritza Ekologikoari buruzko Arauak betetzen dituzten ekoizpen unitateetakoak izan beharko dute. Ekoizpen sistema hori animalien bizi osoan aplikatu beharko da.

3.3.- Abeletxe estentsibo edo erdi estentsiboetan modu konbentzionalean hazitako animaliak sartu ahaliko dira, baldin eta jaiotze fasean ez badago ekoizpen ekologikoaren arauak betetzen dituen behar beste animaliarik. Animalia horiek 2.2 paragrafoan zehaztutako eraldaketa aldia pasatuko dute.

3.4.- Ekoizpen ekologikoko abeletxeetan ezingo da sartu abeletxe intentsiboetako alerik. Orobat, ez da onartuko basoan bildutako edo arauen kontrolrik gabe inportatutako alerik.

4.- Elikadura.

4.1.- Elikaduraren helburua ekoizpenaren kalitatea bermatzea da eta ez alaitik gehien areagotzea, eta animalien elikadura eskakizunak garapenaren etapa guztietan beteko dira. Debeku da bazkatzea behartzea.

4.2.- Hazkuntza sistema nekazaritza ekologikoaren izendapena duten lurretan ereindako landareen erabileran oinarrituko da, eta % 100 nekazaritza ekologikoko lehengaiekin prestatutako pentsuak ere erabili ahaliko dira.

4.3.- 4.2 puntuan adierazitakoa gorabehera, ohiko elikagaiak neurritz erabiltzeko baimena ere emango da (soil-soilik 889/2008 (EEE) Erregelamenduko V.

caso de las praderas, de al menos dos años antes de su explotación como pienso procedente de la Agricultura Ecológica. Así mismo, el periodo de conversión comenzará como muy pronto en la fecha en la que el productor haya notificado su actividad de conformidad con el artículo 8 y colocado su explotación bajo el régimen de control previsto en el artículo 9.

2.2.- Conversión del caracol.

Para que los animales o productos animales puedan venderse con la denominación ecológica, los animales deberán haber sido criados de acuerdo con las normas de Agricultura Ecológica durante un periodo de al menos cuatro (4) meses.

3.- Origen de los animales.

3.1.- Al seleccionar el tipo de caracol de cría se tendrá en cuenta la capacidad de los animales para adaptarse a las condiciones del entorno y su vitalidad y resistencia a las enfermedades. Se autoriza, solamente, el empleo de las especies y sus sinónimos del género *Helix* recogidas en el Código Alimentario Español, apartado 3.13.17: *Helix gualteriana*, *Helix alonesis* (*H. candidissima*, *H. lactea*, *H. aspersus*) y *Helix pomatia*. La utilización de cualquier otro tipo de género y/o de especie autóctona deberá ser autorizada por la Autoridad Competente.

3.2.- Los caracoles deberán proceder de unidades de producción que cumplan las Normas de la Agricultura Ecológica. Este sistema de producción se deberá aplicar a lo largo de toda la vida de los animales.

3.3.- Se podrán introducir animales que procedan de la cría convencional de granjas extensivas o semiextensivas, cuando no exista cantidad suficiente de animales que cumplan las normas de producción ecológica, en la fase de eclosión. Estos animales pasarán el periodo de conversión definido en el punto 2.2.

3.4.- No se podrán introducir en una granja de producción ecológica individuos procedentes de granjas intensivas. Tampoco serán aceptados ejemplares que provengan de la recolección silvestre o de importaciones realizadas sin controles normativos.

4.- Alimentación.

4.1.- La alimentación tiene como fin garantizar la calidad de la producción y no incrementarla hasta el máximo, al tiempo que se cumplen los requisitos nutritivos del ganado en sus distintas etapas de desarrollo. Queda prohibida la alimentación forzada.

4.2.- El sistema de cría se basará en la utilización de plantas que se han sembrado en tierras que están bajo denominación de Agricultura Ecológica, pudiendo emplearse también piensos elaborados al 100% con materias primas de Agricultura Ecológica.

4.3.- No obstante lo indicado en el punto 4.2 se autorizará la utilización de una proporción limitada de alimentos convencionales (únicamente los

eranskinen zerrendan agertzen direnak), baldin eta abeltzainek frogatzen badute, estatu kideko agintaritzako edo kontrol erakundea gogobetetzeko moduan, ezinezkoa zaiela ekoizpen erabat ekologikoetako elikagairik lortzea.

Hamabi hilabetez barraskiloetarako onartuko den ohiko elikagaien portzentajea % 5 izango da gehienez, 2011ko abenduaren 31ra arte.

Kopuru hori urtero kalkulatu beharko da, nekazaritza jatorriko elikagaietako gai lehorrekiko ehuneko gisa. Eguneko anoa gehienez ere onartuko den ohiko elikagaien portzentajea % 25 izango da, gai lehorren ehunekoarekiko kalkulaturik.

4.4.- Animalien elikadura beharrezanean erantzuteko, 889/2008 (EEE) Erregelamenduko V. eranskinen 3. atalean eta VI. eranskinen 1.1 atalean (nutrizio gehigarriak, bitaminak eta oligoelementuak) zerrendatutako produktuak soilik erabili ahalko dira barraskiloak bazkatzeko jatorri minereko lehengai gisa.

4.5.- Soil-soilik 834/2008 (EEE) Erregelamenduko VI. eranskinen 1.2 atalean (gehigarri zooteknikoak, entzimak eta mikroorganismoak), 1.3 atalean (gehigarri teknologikoak, kontserbagarriak, antioxidatzaileak, aglutinatzaileak, aglomeratzaileen aurkakoak eta siloko gehigarriak), 2. atalean (animaliak bazkatzeko erabiltzen diren produktu jakin batzuk) eta 3. atalean (belar bolak ekoizteko substantziak) zerrendatutako produktuak erabili ahalko dira barraskiloak bazkatzeko, aurrez aipaturiko kategorien inguruan adierazi diren helburuekin.

4.6.- Debeku da animalia jatorriko lehengairik sartzea barraskiloen bazkan.

5.- Profilaxia eta albaitari zaintza.

5.1.- Barraskiloen ekoizpen ekologikoan gaitasunik izan ez dadin, printzipio hauek hartuko dira oinarritzat:

a) Ingurunearen baldintzetarako egokiak diren barraskilo espezieak hautatzea.

b) Barraskiloak beren bizimodu naturalaren baldintzak behar beste errespetatuta haziko dira, eta ingurune higieniko egoki batean edukiko dira, gaitasunean ondo aurre egiteko moduan eta infekziozko eraginaz kanpo.

5.2.- Ustategi ekologikoetan albaitaritzako sendagairik erabili behar izanez gero, printzipio hauek bete behar dira:

a) Ahal dela, produktu fitoterapeutikoak (esate baterako, landare aterakinak -antibiotikoak izan ezik-, landare esentziak eta abar), produktu homeopatikokoak (hala nola landare, animalia eta mineraletako substantziak) eta oligoelementuak erabiliko dira, bai eta

que figuran en la lista del anexo V del R (CEE) n.º 889/2008 si los ganaderos pueden demostrar a satisfacción de la autoridad o del organismo de control que les resulta imposible obtener alimentos de producción exclusivamente ecológica.

El porcentaje máximo autorizado de alimentos convencionales por período de doce meses será para los caracoles de un 5% hasta el 31 de diciembre de 2011.

Esta cifra deberá calcularse anualmente como porcentaje en relación con la materia seca de los alimentos de origen agrícola. El porcentaje máximo autorizado de alimentos convencionales en la ración diaria, será del 25%, calculado en relación con el porcentaje de la materia seca.

4.4.- Con el fin de satisfacer las necesidades nutritivas de los animales, sólo se podrán utilizar como materias primas de origen mineral, para la alimentación de los caracoles, los productos enumerados en la sección 3 del anexo V y en la sección 1.1 (Aditivos nutricionales; vitaminas y oligoelementos) del anexo VI del R (CEE) n.º 889/2008.

4.5.- Únicamente los productos enumerados en las secciones 1.2 (Aditivos zootécnicos; enzimas y microorganismos), 1.3 (Aditivos tecnológicos; conservantes, antioxidantes, aglutinantes, antiaglomerantes y aditivos de ensilaje), sección 2 (determinados productos utilizados en la alimentación animal) y sección 3 (sustancias para la producción de ensilaje) del anexo VI del R (CEE) n.º 834/2008, podrán utilizarse en la alimentación de los caracoles con los fines indicados en relación con las categorías mencionadas anteriormente.

4.6.- Queda prohibida la incorporación de materias primas de origen animal en la alimentación de los caracoles.

5.- Profilaxis y cuidados veterinarios.

5.1.- La prevención de enfermedades en la producción ecológica de caracoles se basará en los siguientes principios:

a) la selección de especies de caracoles adecuados a las condiciones del entorno.

b) los caracoles deberán ser criados de manera que sean respetadas suficientemente sus condiciones de vida natural y mantenidos en un entorno higiénico adecuado, que favorezca una gran resistencia a las enfermedades y que prevenga las infecciones.

5.2.- La utilización de medicamentos veterinarios en las explotaciones ecológicas deberá ajustarse a los siguientes principios:

a) Se utilizarán preferentemente productos fitoterapéuticos (por ejemplo, extracto -con exclusión de antibióticos- esencias de plantas, etc.), productos homeopáticos (como sustancias vegetales, animales o minerales) y oligoelementos, así como tratamientos

Nekazaritza Ekologikoari buruzko Arauetan ezarritako substantziak erabiltzen dituzten tratamendu alternatiboak ere.

b) Debeku da sintesi kimikozko albaitaritzako sendagai alopaticoak edo antibiotikoak erabiltzea.

c) Debeku da hazkuntza edo ekoizpena bizkortzeko substantziak erabiltzea (antibiotikoak, kokzidiostatikoak eta hazkuntza bizkortzen duten beste substantzia artifizial batzuk barne).

6.- Abeletxe eta instalazioetako hazkuntza eta mantentze arauak.

6.1.- Nekazaritza ekologikoaren esparruko barraskilo abeltzaintza albait gehien hurbilduko zaie barraskiloen bizimodu naturalaren baldintzei. Aire zabalean garatu beharko da, baina itzala ematen duen oihalezko egitura batez estalita egon ahalko da; animalia kopurua mugatua izango da. Ugaltze, hibernatze eta inkubazio aldietan izan ezik, debeku da barraskilo kumeak eraikin barruan soilik haztea.

6.2.- Kanpoko parkeek landarezko estalki bat izan beharko dute beti, janaria ez ezik itzala eta mikroklima aproposa duen higrometria egokitu bat eskaintzeko barraskiloek, eta nematodo eta bakterioen indizea prebenitzeko. Parkeetan ura banatzeko edozein sistemaren bidez zaindu ahalko da higrometria.

6.3.- Barraskiloek ez badute kanpoko parkeetan hibernatzen, hibernazio aldi naturalean egin beharko da, animalien eskualdeko negualdiaren arabera. Hibernazio aldia ez da izango lau (4) hilabetetik beherakoa.

6.4.- Eraikin barruan ugaltzeko baimena emango da, baldin eta kumeak ez badira bazkatzen kanpoko parkeetara pasa aurretik.

6.5.- Barraskiloak biltegitratzeko operazio oro (hibernazioa, ugaltzea, inkubazioa edo klima muturrekoa den kasuetan) gehienez ere metro kubiko bakoitzeko 100 kilogramo barraskilo metro kubikoko dentsitatea duen leku batean egin beharko da. Kontrol ekipamenduak erabili ahal izango dira, tenperatura konstantea izan dadin eta hibernazio baldintza naturala egokituta egon dadin.

6.6.- Barraskiloak ugaltzeko, biltegitratzeko eta hibernatzeko metodoak.

Debekatuta daude landare osasunerako tratamenduak. Belarra kentzeko eta izurrien kontra borrokatzeko praktika mekanikoak soilik daude baimenduta.

Barraskiloaren hazkuntza ekologikoan erabilitako materialek inolako tratamendu kimikorik hartu gabekoak izan beharko dute, eta ezingo dira izan Ne-

alternativos que impliquen sustancias que estén presentes en las Normas de la Agricultura Ecológica.

b) Queda prohibida la utilización de medicamentos veterinarios alopáticos de síntesis química o antibióticos.

c) Queda prohibido el uso de sustancias destinadas a estimular el crecimiento o la producción (incluidos los antibióticos, los coccidiostáticos y otras sustancias artificiales que estimulan el crecimiento).

6.- Reglas de cría y mantenimiento de las granjas e instalaciones.

6.1.- La ganadería de caracoles en el marco de la agricultura ecológica deberá acercarse lo más posible a sus condiciones naturales de vida. Tendrá que desarrollarse en espacios al aire libre pudiendo estar cubiertos por una estructura con tela de sombreo y con un número de animales limitado. Excepto en los períodos de reproducción, de hibernación y de incubación, la cría de los caracoles exclusivamente en edificio estará prohibida.

6.2.- Los parques exteriores deberán disponer de una cubierta vegetal de forma permanente, con el fin de ofrecer a los caracoles a la vez que la comida, la sombra y una higrometría adaptada que cree un microclima adecuado al animal y prevenga el índice de nemátodos y bacterias. La higrometría podrá ser mantenida por cualquier sistema de dispersión de agua sobre los parques.

6.3.- Si la hibernación de los caracoles no se desarrolla en los parques exteriores, tendrá que efectuarse durante el período natural de hibernación, en función del período invernal de la región de la ganadería. El período de hibernación no será inferior a cuatro (4) meses.

6.4.- La reproducción en edificio se autorizará, a condición de que los alevines no sean alimentados antes de pasar a los parques exteriores.

6.5.- Toda operación de almacenamiento de los caracoles (hibernación, reproducción, incubación o en caso de condiciones climáticas extremas) deberá desarrollarse en un lugar con una densidad máxima de 100 kg de caracoles/m³. Se autoriza la utilización de equipos de control, para mantener la temperatura constante y adaptada a las condiciones naturales de hibernación.

6.6.- Métodos de reproducción, de almacenamiento y de hibernación de los caracoles.

Los tratamientos fitosanitarios están prohibidos. Sólo se autorizan las prácticas mecánicas de desyerbado y lucha contra plagas.

Los materiales utilizados en la cría ecológica del caracol no deben haber sufrido ningún tratamiento químico y no han de proceder de fuentes que ha-

kazaritza Ekologikoari buruzko Arauak betetzen ez dituzten jardueretan erabilitakoak.

Ugaltzeko lokalak eta esparruak, hustu ondoren, karrakatze bidez edo 889/2008 (EEE) Erregelamendu aldatuko VII. eranskinean zerrendatutako produktuen laguntzaz garbitu eta desinfektatuko dira.

Ugalketan, eguneroko garbiketa presiozko urarekin egingo da.

Barraskiloak hazteko klima muturrekoa bada eta horrek animaliak arriskuan jar baditzaie, eraikin barruan sartu ahalko dira berriro ere, behin-behineko eran. Aldi horretan ezingo dira bazkatu.

6.7.- Kanpoko parkeak.

Parkeak edo parkeetako azpisailak sortak ondo bereizteko moduan eratuko dira. Horretarako, honako hauek erabili ahalko dira: sareak, panelak edo txapak (lurzoru barruan sartuak), itxitura elektrikoak dituzten ertzak (1,5 v) edo araudi orokorrak baimendutako edozein produktu natural (xaboi beltza, eguraldi txarretik babesteko eta lurzoruetara ez lerratze koipea...).

Kanpoko parkeek landare estalki trinko bat izango dute.

Nahitaezkoa da gutxienez lau (4) hilabeteko hutsaldi sanitarioak izatea barraskilo sorta baten eta beste baten artean.

Barraskiloentzako eta ondoko bilketarako babesteko tratatu gabeko material natural edo bizigabez egindakoak izango dira.

Ekoizpen aldian, barraskilo harrapariengandik (karraskariak, intsektuak...) babesteko neurriak mekanikoak edo borroka biologiko bidezkoak soilik izango dira.

Debeku da ekoizpen aldian parkeetan ongarri edo medeagarriak erabiltzea. Soil-soilik 889/2008 (EEE) Erregelamenduko I. eranskinean ezarritako produktuek erabili ahalko dira, gehienez ere animaliak parkean jarri baino hogeita hamar (30) egun lehenago.

Kanpoko parkeetako dentsitatea ez da izango metro koadro bakoitzeko 4 kilogramo barraskilo baino handiagoa.

Parkearen azalera ez da izango 300 m² lurzorutik gorakoa.

Ustiatetik kanpoko parkeen guztirako azalera 3.000 m² izango da gehienez.

7.- Kudeaketa zooteknikoaren metodoak, garraioa eta animalien eta animalia produktuen identifikazioa.

7.1.- Animaliak guztiz ertzean daudenean bilduko dira merkaturatzeko. Bilketa animaliak albait gutxien estresatzeko moduan egingo da.

yan sido utilizadas en actividades que no cumplan las Normas de la Agricultura Ecológica.

Una vez vaciados, la limpieza y la desinfección del local y los recintos de reproducción se hará por raspadura, o por la ayuda de productos relacionados en el anexo VII del R (CEE) n.º 889/2008 modificada.

Durante la reproducción, la limpieza diaria se hará con agua a presión.

En caso de condiciones climáticas extremas para el crecimiento de los caracoles, que pongan en peligro la ganadería, éstos podrán transitoriamente volverse a poner en edificio, a condición de que no sean alimentados durante este período.

6.7.- Parques exteriores.

Los parques o subdivisiones de parques deberán concebirse para aislar bien los lotes. Para ello, podrán utilizarse redes, paneles o chapas (insertadas en el suelo), bordes provistos de cierres eléctricos (1,5 v) o cualquier producto natural autorizado por la reglamentación general (jabón negro, grasa protegida de las inclemencias que impida su deslizamiento hacia los suelos, ...).

Los parques exteriores tendrán que disponer de una cubierta vegetal densa.

Es obligatorio un vacío sanitario de cuatro (4) meses mínimo entre dos lotes de caracoles.

Los refugios para los caracoles y para su posterior recolección estarán constituidos por materiales no tratados, naturales o inertes.

La protección contra los depredadores de los caracoles (roedores, insectos, ...) durante el período de producción será solamente mecánica o de lucha biológica.

Está prohibido utilizar abonos o enmiendas sobre los parques durante la fase de producción. Solo podrán ser empleados productos contemplados en el anexo I del R (CEE) n.º 889/2008 hasta treinta (30) días antes de la puesta en parque.

La densidad en los parques exteriores no podrá sobrepasar los 4 kg de caracoles/m².

La superficie de un parque no podrá exceder de los 300 m² de suelo.

La superficie total de los parques exteriores de la explotación será como máximo de 3.000 m².

7.- Métodos de gestión zootécnica, transporte e identificación de los animales y productos animales.

7.1.- Los animales serán recolectados para su comercialización cuando se encuentren totalmente bordeados, realizándose dicha recolección de forma que sean minimizados los factores estresantes de la misma.

7.2.– Hil aurretik, barraskiloak kanpoko parkeetatik kenduko dira, eta lehortzen utziko dira, baraurik, gutxienez bost (5) egunez.

7.3.– Barraskiloak edo horien produktuak prestatzeko edota egiteko, 889/2008 (EE) Erregelamenduko 3. kapituluan jasotako arau orokorrak bete behar dira.

7.4.– Barraskiloak Garraioari buruzko Europako 1/05 (EE) Erregelamenduaren arabera garraiatuko dira.

7.5.– Barraskiloak ongi identifikatuta egongo dira ekoizpen, prestakuntza, garraio eta merkaturatze kate osoan, haien trazabilitatea bermatuta geratzeko moduan.

7.2.– Previamente al sacrificio, los caracoles deberán haber sido retirados de los parques exteriores y puestos a secar, en ayunas, durante un periodo mínimo de cinco (5) días.

7.3.– La preparación y/o elaboración de los caracoles o de sus productos tendrá que cumplimentar las normas generales recogidas en el Capítulo 3 del R (CE) n.º 889/2008.

7.4.– El transporte de los caracoles se efectuará de acuerdo con la Normativa Europea del Transporte, R (CE) n.º 1/05.

7.5.– Los caracoles estarán perfectamente identificados a lo largo de toda la cadena de producción, elaboración, transporte y comercialización de forma que quede garantizada su trazabilidad.